



Iritziak

Zientzia sozialen alde



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIAKO
IRAKASLEA

Noizean behin filosofiak hezkuntzan izan beharreko papera eztabaidagai izaten da, Hego Euskal Herrian bederen. Gutxiagotan eztabaidatzen da, ordea, gizarte zientzien lekuaz eta funtzioaz, bi gaiak oso lotuta egon arren. Oro har, azken urteetako joera da filosofiari eta pentsamenduari loturiko irakasgaiei eta edukiei lekua gutxitzen joatea, gizartean gehiago baloratzen omen diren gaitasun batzuen mesedetan. Horrela, filosofiako irakasgaiak lekua galdu du edo are zokoratu da erreformaz erreforma, eta aldi berean ezagutza sozialak, eta ikuspegi kritikoak orokorrean, ezbaian jartzen dira. Irakasgai eta jakintza alor zehatzei lotutako eztabaida izatetik urrun, joera hauek ondoko galderari atxikitzen zaizkio: zertarako da hezkuntza gure gizartean? Zer egiteko du?

Gutxieste joera hori gertatzeaz batera, adjektiborik gabe zientziazat hartzen diren arloek kontrakoa bizi dutela esango nuke: STEAM delakoak –askotan zientzia “gogorren” eufemismo bilakaturik– goraiatuak dira, maiz salatzen denez ikasle “onak” zientzietara bideratzen dira bigarren hezkuntzan, eta abar. Joera horietan guztietan hiru gako nabarmenduko nituzke.

Batetik, zer hartzen den zientziazat, kultura zientifikotzat; izan ere, zientziaren ikuspegi estua gailentzen dela iruditzen zait, zientziazat arlo batzuk

Zientzia sozialek
erakusten digute
arazoen iturburua
egiturazkoa dela,
lehen begiratuan
norbanakoaren
arazoak iruditu arren

soilik hartzen dituenak. Bigarrenik, horrek guztiak duen kutsu androzentriko garbia. Hain zuzen ere, jakina denez ezagutza arloetan –dela bigarren hezkuntzan, dela unibertsitatean, ikerketan, eta abar– generoen araberako banaketa argia gertatzen da oraindik, eta emakumeak nagusi diren ezagutzak dira joera horietan galtzaile irteten direnak. Horren aurrean, uste dut irtenbide bakarra ezin dela izan neskak bideratzea sozialak ez diren beste zientzia horietara; eta giza zientziak balioestea ere lehentasunezko egitekoa dela. Eta hirugarrenik, honek guztiak duen kutsu ideologiko argia ezin da azpimarratu gabe utzi: gizartean nagusi den mundu ikuskerari funtzionalak zaizkion gaiak baitira aldarrikatzen direnak.

Hezkuntzaren soziologiak eta ezagutza kritikoek, oro har, aspaldi erakutsi bezala, hezkuntzan nagusi diren gaiak, arloak, dinamikak... estuki loturik doaz gizarteko egiturei. Hezkuntzan egiten dena, nolabait esateko, gizartearen makineria osoaren zerbitzura dago, eta horregatik jotzen dira ezagutza batzuk baliogarritzat eta beste batzuk, aldiz, denbora pasa hutstzat. Paradoxikoki, hezkuntza kritika sortzeko esparrua ere bada, baina arestian esandako mugak ezin dira inoiz ahortzi, nire ustez.

Bada, hasierara itzuliz, filosofia hezkuntzan ezinbestekoa dela aldarrikatu beharra dago, eta aldarrikapen hori ezagutza sozialen aldarria batu. Zientzia sozialek erakusten digute arazoen iturburua egiturazkoa dela, lehen begiratuan norbanakoaren arazoak iruditu arren. Norbaitek esan dezake hori gizarte zientzia onak –edo filosofia onak– egiten duela, eta ados nago baieztapen horrekin. Baina hori beste eztabaida bat da: giza eta gizarte zientziek hezkuntzan eremuak galtzen jarraituz gero, ez da inolako espaziorik izango zientzia sozial ona eta txarren artean desberdindu ahal izateko.

Beraz, gizartean geroz eta gehiago guztia dagoenean azalpen eta irtenbide indibidualak gailendu daitezen bideratua, funtsezkoa iruditzen zait hezkuntzan ere zientzia sozialen ekarpena aldarrikatzea, gure bizitzetan eragiten duten egoeren egiturazko izaera ulertu ahal izateko baldintza gisa. ●